



## **EIBK ETA EROSKIK 40 MILIOI EUROKO MAILEGU BAT IZENPETU DUTE, SALTOKIETAN BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA BULTZATZEKO**

- **Inbertsioek Espainia osoko 1.500 supermerkatu ingururen iraunkortasuna hobetuko dute, energiaren erabilera optimizatzearekin.**
- **Proiektuak orobat dakartza adimen artifizialaren eta zibersegurtasunaren arloko inbertsioak. Horiek bezeroaren esperientzia eta hornidura katearen erresilientzia indartuko dute.**
- **Operazioak TechEURI lagunduko dio, hau da, EBn berrikuntza teknologikoa bizkortzeko inbertsio programarik handienari, bai eta REPowerEURI ere, erregai fosilen inportazioarekiko mendetasuna gutxitzeko programari.**

**Elorrio, 2026ko martxoaren 27a.**- EIB Europako Inbertsio Bankuak eta [EROSKI](#)k 40 milioi euroko mailegu lerro bat izenpetu dute. Konpainiari balioko dio Espainia osoan dituen saltokietan inbertsio programa bat abiarazteko energia eraginkortasunaren eta berrikuntza digitalaren arloan.

Operazioaren bidez finantzaturiko proiektuek balioko dute zentro, plataforma eta egoitzetan energia kontsumoa gutxitzeko eta berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko, bai eta teknologia digital aurreratuak hedatzeko ere. Horrek Europako txikizkako sektorearen lehiakortasuna indartzen lagunduko du, eta, berritze lanek irauten duten bitartean, enplegua sortzen ere bai.

Eraginkortasun energetikoaren alorreko inbertsioak hozte industrialaren sistema modernizatzerara bideratuko dira, bai eta 1.500 denda ingururen berokuntza, aireztapena eta aire girotua berritzera ere. Jarduketa horien artean, hozgarri iraunkoragoetarako trantsizioa dago, eta energia errendimenduan egindako hobekuntzak; horri esker, CO2 emisioak murriztu ahal izango dira.

**EROSKI - Komunikazio Korporatiboko zuzendaria**  
Patricia Martin Sanchidrian

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**INCÓGNITO - Agencia de Prensa de EROSKI**  
Nora Garay  
Nagore García de Vicuña

Tel: 677 71 95 68

Tel: 630 98 66 19

[kaixo@enemasene.eus](mailto:kaixo@enemasene.eus)



**EROSKI**

Berrikuntzaren arloko inbertsioei esker, teknologia digitalen gaitasunak baliaitu ahalko dira –hala nola adimen artifiziala eta datuen analisia– bezeroaren esperientzia hobetzeko, operazioetan eraginkortasuna irabazteko da eta ziberresilientzia indartzeko.

"EROSKIrekin mailegua izenpetuta, beste behin erakusten dugu nola babesten duen EIBk energia trantsizioa eta eraldaketa digitala ekonomiarako garrantzitsua den sektore honetan", esan du **Pilar Solanok, EIBk EBrako duen Finantzaketa Korporatiboko Departamentuko zuzendariak**. "EROSKIren digitalizazioan eta energia eraginkortasunerako inbertsioetan lagun eginda, EIB laguntzen ari da erregai fosilekiko mendetasuna apaltzen, eta aldi berean Europako txikizkako sektorearen lehiakortasuna eta hazkuntza iraunkorra bultzatzen".

"Europako Inbertsio Bankuak inbertsio programa hau babesten du, EROSKIk 2025eko azaroan finantzaketa prozesu bat abiatu zuelako. Orain idatziz formalizatu izanak ez ditu aldatzen iragarritako finantza prozesu honen baldintzak. EIBren partaidetza paraleloan landu da azken hilabeteotan, eta koherentea da EROSKI Taldearen eta haren eredu kooperatiboaren eboluzioan metatu den konfiantzarekin. Babes horretaz gain, lehendik jasoak ditu tokiko instituzioenak, estatukoena eta finantza erakundeena, bai Espainiakoenak eta bai nazioartekoena. Hala, proiektuaren sinesgarritasun instituzionala indartuta aterata da, eta, era berean, Europar iraunkortasunaren eta berrikuntzaren arloan orain eta epe luzera dauden estandarrekin lerrotzen da", adierazi du **Josu Mugarra Urrutiak, EROSKI Taldearen finantza arloko zuzendariak**. "Finantza esparrua ez ezik, operazio honek zuzenean laguntzen die gure lehentasun estrategikoei; batik batik, eraginkortasunaren eta berrikuntza teknologikoaren arloan. Gure inbertsioek modua ematen digute aurrera egiteko gure sarearen optimizazio operatiboan, energia kontsumoa gutxituz eta, aldi berean, bezeroei eskaintzen diegun balioa hobetzen jarraituz. Horrela, arinago eta zorrotzago egokitu gaitzke haien beharretara", amaitu du Mugarrak.

Proiektuak lagunduko du pauso garrantzitsuak ematen klima-ekintzaren, digitalizazioaren eta berrikuntza teknologikoaren arloan EIB Taldeak dituen lehentasun estrategikoetan, zeinak ezarriak baitatzoz [Taldearen 2024-2027ko Errepide Mapa Estrategikoan eta Klima Bankuaren Errepide Mapako 2. fasean \(2026-2030\)](#). TechEU ekimenaren parte da mailegua. EIB Taldearen programa da TechEU, eta horren xedea da EBn berrikuntza bizkortzea, hemendik 2027ra, 250.000 milioi euroren inbertsioak mobilizatuta Europa osoko enpresa emergenteetan, hedatzen ari diren enpresetan eta enpresa berritzaileetan. EIBk [REPowerEU](#) bultzatzeko duen ekintza planaren parte ere bada. Programa horrek energia arloko segurtasuna indartzen du, eta erregai fosilak inportatzeko EBk duen mendetasuna apaltzera bideratuta dago.

[InvestEUren](#) babesa du operazioak, hau da, inbertsio gehigarrietan 2021etik 2027ra 372.000 euro baino gehiago mobilizatuz Europar Batasunak duen programarena.

**EROSKI - Komunikazio Korporatiboko zuzendaria**

**Patricia Martín Sanchidrián**

**Tel: 946 211 214**

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**INCÓGNITO - Agencia de Prensa de EROSKI**

**Nora Garay**

**Nagore García de Vicuña**

**Tel: 677 71 95 68**

**Tel: 630 98 66 10**

[kaixo@enemasene.eus](mailto:kaixo@enemasene.eus)



# EROSKI

## EROSKiri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.

## EIB Taldea

Europako Inbertsio Banku Taldea (EIB) Europar Batasunaren finantza erakunde nagusia da. Horko akziodunak 27 estatu kideak dira, eta munduan den garapen banku multilateralik handienetako bat da. 2025ean, EIB Taldeak 100.000 milioi euro izenpetu zituen finantzaketa berritan eta aholkularitza-zerbitzuetan 870 proiektu baino gehiagorentzat; proiektuok, hain zuzen, [inpaktu handia](#) dute EBren [helburu estrategikoei](#) laguntzen dieten [zortzi lehentasun nagusietan](#): klimaren eta ingurumenaren aldeko ekintza, digitalizazioa eta berrikuntza teknologikoa, segurtasuna eta defentsa, lurralde kohesioa, nekazaritza eta bioekonomia, gizarte azpiegitura, mundu mailako aliantza sendoak eta Aurrezkien eta Inbertsioen Batasuna. Azpiegitura handietarako epe luzeko maileguz gain, EIB Taldeak inbertsio pribatua ere erakartzen du arrisku handiko enpresa eta proiektu berritzaileetarako, eta gero eta garrantzi handiagoa du Europako *venture debt*, arrisku kapital, berme eta titulizazio merkatuetan.

Espainian, EIB Taldeak 11.000 milioi euro ingururen finantzaketa eta inbertsio operazioak egin ditu, eta horiei beste 2.900 euro batu behar zaizkie Autonomia Erkidegoetako Erresilientzia Funtsetan (Next Generation EU izeneko maileguak) 2025ean.

EIF Europako Inbertsio Funtsa, berriz, EIB Taldearen filiala da, eta bermeak eta kapitala ematen espezializatuta dago, Europa osoan finantzaketa irisgarriagoa izan dadin enpresa txiki eta ertainentzat eta enpresa emergenteentzat. Aingura-inbertitzaile gisa duen zereginean, EIFk inbertsio pribatua mugiarazten du eta arrisku kapitalaren arloko funtsen ekosistema bultzatzen du, berritzaileak diren Europako ekintzaileei laguntzeko, bere banku-sare zabalaren eta inbertsio funts kidetuen bidez.

2023an, EIFk abian jarri zuen, sei estatu kiderekin batera (Frantzia, Alemania, Italia, Espainia, Belgika eta Herbehereak), European Tech Champions ekimena, funtsen funts bat, xede duena hedapen fasean diren enpresa emergente berritzaileak bultzatzea. Ekimenari esker, dagoeneko arrisku kapitalaren arloko 14 megafunts europar sortu dira eta 40 enpresa handitu egin dira, horien artean 11 adarbakar (1.000 milioi eurotik gora baloratutako erakundeak).

[Hona hemen](#) hedabideentzat EIB Taldeko ordezkarien eta egoitzaren argazkiak, orobat logotipoa eta B-roll bideoen sekuentziak.

## InvestEU

InvestEU programak epe luzeko finantzaketa ematen dio Europar Batasunari; ildo horretan, funts pribatuen eta publikoen bolumen handia mugiarazten du berreskurapen iraunkor baten mesedetan. Orobat laguntzen du inbertsio pribatua erakartzen, Europar Batasunaren lehentasun estrategikoak bultzatzeko, hala nola Europako Itun Berdea eta trantsizio digitala. InvestEUren aterkipean, batera biltzen dira EBk lehen estatu kideei inbertsioetan laguntzeko eskuragarri zituen finantza tresna guztiak; horrela, errazagoa, efizienteagoa eta malguagoa da Europar inbertsio proiektuak finantzatzea. Programak hiru osagai ditu: InvestEU Funtsa, InvestEU Aholkularitza Zentroa eta InvestEU Ataria. InvestEU Funtsa, bazkide finantzarioen bitartez gauzatzen da. Bazkide horiek

## EROSKI - Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Patricia Martin Sanchidrian

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

## INCÓGNITO - Agencia de Prensa de EROSKI

Nora Garay

Nagore García de Vicuña

Tel: 677 71 95 68

Tel: 630 98 66 10

[kaixo@enemasene.eus](mailto:kaixo@enemasene.eus)



proiektuetan inbertitzen dute, EBren 26.200 milioi euroko aurrekontu bermea erabilia. Alde horretatik, aurrekontu berme osoak bazkide gauzatzailen inbertsio proiektuak babesten ditu, arriskuak asumitzeko gaitasuna handitzen du eta helburu du gutxienez 372.000 milioi euroko inbertsio gehigarria mobilizatzea.

---

**EROSKI - Komunikazio Korporatiboko zuzendaria**

**Patricia Martin Sanchidrian**

**Tel: 946 211 214**

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**INCÓGNITO - Agencia de Prensa de EROSKI**

**Nora Garay**

**Nagore García de Vicuña**

**Tel: 677 71 95 68**

**Tel: 630 98 66 10**

[kaixo@enemasene.eus](mailto:kaixo@enemasene.eus)